Martxoak 8

Martxoaren 8an, Emakumeon Egunean, orain arte lortutakoa ospatzeko egunetik haratago, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feministaeta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan, mugimenduaren antolakuntzak eta interpelazioetatik, jendarte guztia inplikatzekoizan duen eraginaz mintzatzea. Zentzu honetan, instituzio honi dagokion ardura hartzetik aurkezten dugu adierazpen hau.

Azken urteotan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun estrukturala ukatzen duten, indarkeria matxista zalantzan jartzen duten eta feminismoa mehatxu bat balitz bezala gutxiesten duten diskurtsoen aurrerapen kezkagarri bat ikusten dugu.

Diskurtso ukatzaileetatik haratago, feminismoa urrunegi joan dela defendatzen dute ahots erreakzionarioek. Nola esan daiteke feminismoa urrunegi joan dela oraindik ere soldata-arrakala, sektore feminizatuen prekarizazioa edota erailketa matxistak pairatzen ditugunean? Horrek erakusten du desberdintasunak eta egiturazko botere-harremanak desagerrarazteko borrokan jarraitu behar dugula.

Diskurtso horiek benetako ondorioak dituzte eta historiak gogorarazten digu eskubideetan atzerakadakez direla modu malkartsuan hasten, baizik eta gorrotoaren diskurtsoa normalizatuz, desinformatuz eta berdintasuna eta giza duintasuna bezalako oinarrizko printzipioak zalantzan jarriz. Horregatik, gure betebehar instituzionala da erantzukizunez jokatzea.

Esan bezala, oraindik ere soldata arrakala eta sektore feminizatuen prekarizazioa errealitate bat izaten jarraitzen du Euskal Herrian.
2025eko otsailean plazaratutako informe baten arabera gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala %16,47koa da EAEn eta %18,54a Nafarroan. 20 urte beherako pertsonen artean arrakala %28,64ra igotzen da eta 65 urtetik gorakoen artean %25,57koa.
Horrez gain, nabarmentzekoa da emakumeen %24,8k Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) pareko edo hortik beherako irabaziak jasotzen dituzten bitartean, gizonen artean ehuneko hori ez dela %11ra iristen.

Datu hauek mahai gainean jartzen dute oraindik ere asko dagoela egiteko. Orokorrean emakumeek lan-baldintza okerragoak dituzte eta kontratuen behin-behinekotasun eta partzialtasun handiagoaren ondoriozko prekarietate-indize handiagoa.

Arrakala hau estrukturala da, emakumeek egiten dituzten lanak debaluatuta daude, balio gutxiago ematen zaie.

Kategoria bereko langileek ez dute soldata bera jasotzen sektore ezberdinetan.

Sektore feminizatu eta maskulinizatuen arteko soldata arrakala ematen da eta askotan ematen diren datuek ez dute arrakala hau ikustarazten.

Soldata arrakalaz eta prekarizazioaz ari garela ezin aipatu gabe utzi zaintzaren inguruko eztabaida.

Emakumeek beren gain hartzen jarraitzen dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; eta azken honek gainera, prekarizazio norabidea nabarmen hartu du. Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino.

Greba Feministaren egunean aldarrikapen zehatz batzuk kokatzeaz gain, epe motz, ertain zein luzeko dinamika batez hitz egin zen eta horretarako Herri Akordio bat mahai gaineratu zen. Instituzioetatik herri akordio hori bideratzeko, gure herri zein herrialdearen errealitatera moldatzeko eta hori aurrera eramateko baliabideak jartzea gure ardura da. Hori Gobernantza Feministaren bultzatzea eta Politika Feministak mahai gaineratzean datza. Instituzioetatik ezinbestekoa da planteatutako aldarrikapenak alor konkretu bati (Berdintasun alorrari) dagokion lana dela pentsatzeari eta lantzeari uztea. Gure bizitzak baldintzatuko dituzten erabaki horiek zeharlerrotasuna bermatu behar dute. Eta, beraz, erabaki horiek hartzen dituzten egiturek herri boterea eta gobernantza eredu berriak behar dituzte. Horretarako beharrezkoa da lehentasunak definitzeko begirada berri bat, denon bizitzak erdigunean jarriko duen begirada, hain zuzen ere.

Mobilizazio ugari eta bi greba feministaren ondoren, kaleetako aldarria argia da, erabatekoa: Gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea. Beharrezkoa da eraldaketa erradikalak gauzatzea.

Feminismoa defendatzea berdintasun-politiken zentraltasuna bermatzea eta beharrezko baliabideez hornitzea ere bada. Emakumeek eta disidentziek beren segurtasuna, autonomia edo gizartean duten erabateko parte-hartzea zalantzan jartzen ez dela bermatzea.

Beharrizan nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa eta elkarrizketa guneak bultzatu eta indartuz.

Honekin batera, erakunde honek berretsi egin behar du eskubideen defentsarekin, indarkeria matxista mota guztiak desagerraraztearekin eta negazionismoaren aurrean atzera egiten ez

duten eta autoritarismoaren aurrean amore ematen ez duten politika publikoen defentsarekin dugun konpromisoa.

Honetaz guztiaz gain, beti bezala, mugimendu feministak gure herri eta eskualdeetan egingo dituen ekimen eta mobilizazioak babestu eta hauetan parte hartzeko deia egiten dugu.

Akordio puntuak:

• Mugimendu Feministarekin batera Zainketen aldeko Herri Akordioarekin bat egitea eta partekatutako espazioetan jorratutako puntuak garatzea, hala nola Zaintza Mahaiak.

• Gobernantza-ereduaren inguruan lan egitea eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko bideak ezartzen jarraitzea, berdintasun-planen, barne-planen eta berdintasunerako ordenantzen bidez.

• Bizikidetzaren gaiari buruzko proiektu bat abian jartzea, kulturarteko eta belaunaldien arteko integrazioa, erakundeetako arduradunekin, langileekin eta eremu desberdinetako kolektiboekin lankidetzan.

• Mugimendu feministarekin eta emakumeen mugimenduekin lankidetzan aritzea

• Bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko Mugimendu Feministaren ekarpena eta lana aitortzea.

• Euskal Herriko Mugimendu Feministak herri/herrialdeetan bultzatuko duen dinamikarekin bat egitea eta martxoaren 8ko deialdiak babestea, herritarrei bertaratzeko deia eginez.

• Emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboen aurkako indarkeria matxisten erantzun instituzionalerako protokolo-prozesuarekin jarraitzea.

• Emakumeen eta LGTBIQ+ taldeen aurkako indarkeria matxisten sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpainak bultzatzea eta laguntzea jai-testuinguruan.

• Udalerriko emakumeek historian zehar izan duten funtsezko zeregina ikusaraztea eta balioestea.